DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

# Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

## Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
## Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko irailaren 16an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

*"17 urteko gazte batek eraso ikaragarria jasan zuen Aste Nagusiko jaietako bigarren eguneko goizaldean, beste gazte bat labana batekin oldartu zitzaion-eta. Hori dela-eta, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu indarkeria-ekintza ororen aurrean.*

*Arrazoia eta elkarrizketa dira edozein gatazka konpontzeko bide zuzen bakarrak.*

*Hori dela-eta, behean sinatzen dugun taldeok honako erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu:*

*ERAKUNDE-ADIERAZPENA*

*1. Gure gaitzespenik eta arbuiorik handienak erakutsi nahi ditugu 2022ko abuztuaren 15eko goizaldean, Donostian, 17 urteko gazte batek jasandako erasoa dela-eta. Gaztea larri dago, beste adingabe batek sastakaia sartu ziolako.*

*2. Berretsi egiten dugu elkarrizketarekin, hurkoari zor zaion errespetuarekin, bizikidetzarekin eta askatasunarekin dugun konpromisoa, balio goren gisa, eta gaitzesten dugu edozein indarkeria-mota erabiltzea.*

*3. Donostiako Udalak larriki zauritutako gazteari eta haren familiari hurbiltasuna eta laguntza*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 16 de septiembre de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*"Ante la terrible agresión sufrida por un joven de 17 años en la madrugada del segundo día de las fiestas de Sema Grande, al ser atacado por otro joven con un cuchillo, queremos manifestar nuestra más rotunda condena ante cualquier tipo de acto de violencia.*

*Sólo la razón y el diálogo son las vías correctas para solucionar cualquier tipo de conflicto.*

*Por estos motivos, los grupos municipales firmantes presentamos la siguiente*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*1. Mostramos nuestra más absoluta condena y repulsa ante la agresión sufrida por el joven de 17 años que se encuentra en estado grave tras ser apuñalado por otro menor en la madrugada del 15 de agosto de 2022 en San Sebastián.*

*2. Reafirmamos nuestro compromiso con el diálogo, el respeto al prójimo, la convivencia y la libertad como valores supremos y rechazamos el uso de cualquier tipo de violencia.*

*3. El Ayuntamiento de San Sebastián quiere trasladar su cercanía y apoyo al joven gravemente*

10740n XVII

*helarazi nahi dizkie.”*
========================================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko irailaren 20an.

*herido, así como a su familia”.*
========================================

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 20 de septiembre de 2022.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**